

24/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari duten borondatezko parte-hartzeari buruzkoa.

Larrialdien Kudeaketari buruzko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen V. kapituluak babes zibileko boluntariotza arautzen du. Lege horren arabera, babes zibileko eta oro har larrialdiei aurre egiteko lanetan herritarrek duten parte-hartzea bermatu eta zabaltzen dute boluntariotzako erakundeak; arriskuaren aurrean nola jokatu eta arriskuak nola prebenitu jakiteko, gizartearen kontzientzia bultzatzen dute, eta horrelako erakundeak izatea eta erakunde horietako kideen prestakuntza baliabide ordainezina dira larrialdiei edo hondamendiei aurre egiteko, profesionalei laguntzen edota haien ordeztzen baitira.

Lege-arauak ezarritako hainbat alderdi osatzeko, beharrezkoa da legea zati batean garatzea, esaterako: herri-administrazioek aitortu dezaten babes zibileko boluntarioen erakunde edo zerbitzuen izaera, erakunde horiek bete beharreko betekizunak ezarri, lankidetzan jardun ahal izateko eta babes zibileko euskal sistemari sar daitezten, euren autonomia eta erantzukizun propioak galdu gabe; eskema horretan dagozkien eginkizunak zehaztea -baita prestatzeko, identifikatzeko eta behar dituzten ekipamenduak lortzeko oinarriko alderdiak ere- ezinbestekoak baitira larrialdiei aurre egiteko euskal sistemari duten parte-hartzearen koherentzia ziurtatzeko gutxienezko homogeneizazioa lortzeko.

Alderdi horiek guztiak arautuz, dagoeneko sortuta dauden babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak indartu eta berrien sorrera erraztu nahi da udalerriri mailako babes zibileko egitura indartuz; eta horretarako, komeni da euren estatutu juridikoa argitu eta udalerriekin harreman egonkorra izatea, lankidetzaren hitzarmen edo -erabakien bitartez. Azken finean, horrekin, babes zibileko politikan boluntariotzaren kalitatea hobetzea lortu nahi da, boluntariotza sustatzeko politika zuzenak gehituz.

Halaber, larrialdiei aurre egitearekin eta babes zibilarekin lankidetzan aritzeko boluntarioen bestelako erakunde batzuk egon daitezkeela ere aurreikusten da, babes zibilaren gainetik beste helburu edo xede batzuk dituztenak edo jakineko lurralde-eremu bati lotuta ez daudenak esaterako, edota larrialdiei aurre egiteko eginkizun berezietan espezializatuta daudenak.

Bidezkotzat jo da azkenik, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari parte hartzen duten suhiltzaile boluntarioei kapitulu bat eskaintzea, boluntario direnez, suhiltzaileen zerbitzuan kokatuta badaude ere. Horrenbestez, Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen 33. artikuluan ezarritakoaren gutxienezko garapena egiten da, eta gainerakoan sua itzaltzeko eta prebenitzeko zerbitzuen eta salbamendu-zerbitzuen kasuan kasuko araudi propioetan ezarritakoa aplikatuko da.

Ondorioz, Herrizaingoko sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2010eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Helburua.

1.- Dekretu honen helburua da Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilareko Euskal Sistemarekin lankidetzan aritzen diren erakundeetan herritarren borondatezko parte-hartzea arautu, sustatu eta bultzatzea, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legearen Dekretuan xedatutakoa garatuz.

2.- Euskal herri-administrazioek landutako babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko planen, egitarauen eta ekintzen garapenean parte hartzen duten boluntarioen erakunde publiko zein pribatuei ezarriko zaie dekretu honetan aurreikusitako araubide juridikoa.

2. artikulua.– Herritarrek laguntzeko eta parte hartzeko sareak.

1.– Babes zibilaren intereseko boluntario-erakunde hauek osatzen dute Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemako herritarrek laguntzeko eta parte hartzeko sarea:

a) Babes zibileko udal-egiturari lotutako Euskadiko babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak.

b) IV. kapituluak aipatzen dituen Euskadiko babes zibileko erakunde laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena badute.

2.– Babes zibilaren eta larrialdien arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzan propio sortutako erregistroan inskribatuko dira aurreko paragrafoetan aipatutako erakunde eta entitateak, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistema osatzen duen sarearen barruan jarduteko beharrezko baldintza gisa, eta kasuan kasu dagokion bulegoaren mende egongo dira.

3. artikulua.- Larrialdietako jarduera.

1.– Istripu, hondamendi edo lazeria publikoetan, boluntarioek dagokion agintaritzaren mendekotasun funtzionalarekin jardungo dute. Arau orokor gisa, errefortzua edo laguntza ematera mugatuko dira, eta, hala badagokio, profesionalen eta funtzionarioen osatutako zerbitzu publikoen ordezkotza subsidiarioa egingo dute, bat etorritik Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 64. Artikuluekin.

2.- Boluntariotzako erakundeek euren parte-hartzea beharrezkoa den larrialdietan hartuko dute parte, Babes Zibileko Planei eta parte-hartze horretarako sortutako taktika erakingorrei jarraiki.

3.- Jakiten badute larrialdiren bat gertatu dela euren aritze-eremuan, edo lehenengoak badira larrialdiko eremura iristen, berehala 112 larrialdietako telefonora deitu beharko dute.

4.- Baliabide profesionalak larrialdi-eremura iristen direnean, aurretik hara iritsitako boluntarioen arduraduna larrialdi-eremura lehenik heltzen den zerbitzu profesionalako agintariarekin harremanetan jarriko da, eboluzioaren eta bera heldu den arte egindako lanen berri emateko, eta ondoren haren agindupean jarriko da.

5.- Boluntarioak larrialdiko tokira heltzen direnerako profesionalen talde bat dagoeneko lanean ari baldin bada, martxan jarritako boluntarioen taldeko arduraduna Aginte Postu Aurreratuko zuzendariari aurkeztuko zaio edo, horrelakorik ez badago, larrialdiko laguntza zuzentzen duen aginte profesionalari, eta horrek esleitzen dizkion eginkizunak beteko ditu boluntarioen ezagutza eta trebakuntza kontuan izanda.

6.- Boluntarioen erakundeko arduradunak uste badu mugiarazitako boluntarioak ez direla gai esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko, larrialdiko laguntzaren arduradunari jakinarazi beharko dio berehala.

7.- Boluntarioek ondo identifikatuta egon beharko dute jarduera eraginkorretan.

4. artikulua.- Boluntarioen eskubide eta betebeharrak.

1.–Boluntarioek ondoko xedapenetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte:

Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren II kapitulua; boluntariotzari buruzko erregulazio orokorra, boluntarioak integratzen diren erakundeei aplikatu dakiekena; dekretu hau eta aplikatu daitekeen gainerako ordenamendu juridikoa, eta erakunde bakoitzaren barne-arau eta estatutuek agindutakoak.

2.- Pertsona horien betebeharrak euren borondatez ekitetik eratorritakoak dira eta Konstituzioaren 30.4 artikulua araberan, hondamendi, lazeria edo arrisku larrien kasuetan herritar gisa izan ditzaketen betebeharratik aparteak.

3.- Boluntarioen harremanak erakundearekiko ez du kontratu- edo funtzionario-izaerako loturarik sortuko. Borondatez sartu den erakundeko barne-araudia onartzean sortutako betebeharrak izango ditu burutu beharrekoak.

4. bis artikulua.- Boluntario-betebeharrak laneko bizitzarekin bateratzea.

1.- Administrazio publikoek sustatuko dute haien barruan eta enpresa pribatuen eremuan ahalbidetuko dela neurriak hartzea, negoziatio kolektiboan adostutakoa erabat errespetatuz, besteren konturako langileek edo enplegatu publikoek babes zibileko boluntariotza-zereginak gauzatzeko aukera izan dezaten.

2.- Agintaritza eskudunak babes zibileko larrialdiei eta hondamendiei aurre egiteko dagokion plana aktibatzen duenean, babes zibileko boluntarioen nahitaezko eginbehar publiko pertsonala da, lan-araudian edo enplegu publikoari buruzkoan xedatutakoaren ondorioetarako, agintaritza eskudunak emandako mobilizazio-aginduei jarraitzea, bat etorritik Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 65.4 artikuluaekin.

3.- Boluntarioen erakundeetan lankidetzak aktiboan emandako denbora, arau-hauste astun edo oso astunagatik boluntarioa erakunde horietatik baztertua izan ez bada, merezimendutzat jo ahal izango da euskal administrazio publikoetan sartzeko edo horietan lan-kontratua izateko, baldin eta lanpostu horien eginkizunak boluntario moduan egindako zerbitzuei edo lortutako gaitasun edo prestakuntzari lotuta badaude, kasuan kasuko enplegatu publikoei aplikagarri zaien araudian ezartzen denaren arabera.

5. artikulua.- Boluntariotzako erakundeen betebeharrak orokorrak.

1.- Boluntariotzako erakundeak legez eraturitakoak izan behar dute eta bertako kideen jarduna norberaren gogozkoa, altruista eta doakoa izango da.

2.- Erakundeak ordaindu ahal izango dizkio boluntarioari sortarazi dizkion gastuak, hala nola ohiko lanpostua uzteagatik galdutako diru-kopurua. Bestelako hobariak edo konpentsazioak ere ezarri ahal izango dira baina aldizkakotasunik eta soldata-izaerarik gabe.

3.- Besteren konturako langileak kontratatu edo aldi baterako lan-zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, jarduera arruntak eskatzen duen neurrian.

4.- Erakundeek euren jardunbidea demokratikoa dela ziurtatu beharko dute, hierarkia egituraren barruan; indarrean dagoen lege-antolamenduaren arabera boluntarioek dituzten eskubideak ere errespetatu beharko dituzte. Zehatz mehatz:

a) Boluntarioak erakundeko kide egin zireneko hitzarmenean haiekiko hartutako konpromisoak bete beharko ditu erakundeak.

b) Istripu-arriskua estaliko duen boluntarioen jardueraren ezaugarri eta egoerara egokitutako aseguru-poliza bat egin dutela egiaztatuko beharko dute, heriotza, elbarritasun edo aldi baterako ezintasuna eta boluntario gisa euren eginkizunak betetzean besteri eragindako kalteei aurre egiteko erantzukizun zibileko arriskua jasoko dituen.

c) Zerbitzua ematek eratorritako gastuak ordaindu eta boluntarioak euren eginkizunak bete ditzaten baliabide egokiz hornitu beharko dituzte.

d) Boluntarioek eurei esleitutako lanak egin ahal ditzaten, informatzeko eta orientatzeko barne-sistema egokiak ezarriko dituzte.

e) Behar duten prestakuntza emango diete boluntarioei, euren jarduera behar bezala burutu dezaten.

f) Euren lana segurtasun- eta higiene-baldintza honetan egingo dutela bermatuko diete boluntarioei, betiere lanen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta.

g) Euren lana egiteko gaitu eta identifikatuko dituen egiaztapen-agiria egingo diete boluntarioei.

h) Egindako lanen egiaztapen-agiria egingo diete boluntarioei.

i) Boluntarioen alta eta baje erregistroa izango dute.

6. artikulua.- Sustapena eta herri-administrazioekin lankidetzan aritzea.

1.- Larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloan herritarren lankidetzan sustatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, boluntarioen erakundeak sustatuz, besteak beste.

2.- Orobat bultzatuko dute babes zibilaren intereseko boluntarioen erakundeen hornikuntza, prestakuntza eta gaikuntza, baldin eta erakunde horiek lankidetzan jarduten badute babes zibileko agintaritzek diseinatutako plan eta programekin, edo haietan parte hartzen badute; eta bermatuko dute, egokien irizitako formula erabiliz, erakunde horiek beren kideen arrisku pertsonalak aseguratzea, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 66. artikuluan aurreikusten den eran.

3.- Dekretu honetan ezarritakoaren arabera eratu eta dekretu honen V. kapituluaren araututako erregistroan inskribatzen diren boluntarioen erakundeak soilik jaso ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloan emandako laguntzak eta diru-laguntzak.

II. KAPITULUA

EUSKADIKO BABES ZIBILEKO BOLUNTARIOEN TOKI-ERAKUNDEAK

7. artikulua.- Zer diren.

Toki-entitateen jardun-alarrean herritarrak parte hartzeko, babes zibileko lanetan irabazi-asmorik gabeko lankidetzan helburu duten erakundeak dira Euskadiko babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak, toki-elkarte edota berezko nortasun juridikoa duten elkarte gisa eratzen diren kontuan hartu gabe.

8. artikulua.- Eraketa.

1.- Elkarte zein toki-elkarte gisa eratu ahal izango dira babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak.

2.- Babes zibileko boluntarioen toki-erakunde bat elkarte gisa eratzeko, gutxienez honako baldintzak bete beharko ditu:

a) Elkarteei buruzko legediaren arabera eratzeko eta boluntariotzako erakundearen baldintza

komunak betetzea, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

b) Babes zibila eta larrialdiei aurre egiteko kudeaketarekin zerikusia duten zeregin eta ekintzetan jardutea eta zerbitzua ematea izatea euren helburu nagusi, dekretu honetan eta parte hartzen duten babes zibileko planetan ezarritakoaren arabera.

c) Parte hartu nahi duten auzotar eta bertakoentzat irekita egotea, adina, ezintasun fisikoa zein psikikoa edota elkarte bakoitzak ezarritako probak ez gainditu izana izango direlarik muga bakarrak.

d) Udalerriko babes zibileko eginkizunetara lotzea, tresna konbentzionalen bitartez. Kasuan kasuko udalak egiaztatuko du babes zibileko planetan elkarteak parte hartu izana.

3.- Babes zibileko boluntarioen toki-erakunde bat toki-elkarte gisa eratzeko, gutxienez honako baldintzak bete beharko ditu:

a) Kasuan kasuko toki-entitateko organo eskudunak hartuko du toki-elkartea sortzeko erabakia.

b) Babes zibilarekin zerikusia duten lan eta ekintzak izango dira toki-elkartearen jarduera eta zerbitzu ematearen helburu nagusia, helburu horretarako jakineko egitura bat sortzeko modu altruistan elkartzen diren pertsonen parte-hartzeko modua eginez, betiere euren prestakuntza eta funtzionamendua babesten duen toki-erakundearen mendekotasun hierarkiko, juridiko, ekonomiko eta funtzionalaren pean.

c) Parte hartu nahi duten auzotar eta bertakoentzat irekita egotea, adina, ezintasun fisikoa zein psikikoa edota erakunde bakoitzak ezarritako probak ez gainditu izana izango direlarik muga bakarrak.

4.- Babes zibileko boluntarioen toki-erakundeek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari parte har dezaten, aurretik dekretu honen V. kapituluaren araututako erregistroan inskribatu beharko dira.

9. artikulua.- Eginkizunak.

1.- Prebentzio eta eraginkortasunaren aldetik larrialdiak kudeatzea izango da toki-erakundearen eginkizun etengabea eta ohikoa. Zehatz esanda, honakoak dira horien eginkizunak:

a) Prebentzioaren eremuan:

1) Jendea elkartzen den eraikin, lokal edo establezimenduei begira batik bat, herriaren arriskugarritasun-mailari dagozkion azterlanetan parte hartzea.

2) Udalerrietako babes zibileko planak gauzatzen eta mantentzen parte hartzea.

3) Arrisku horiek eragindako taldeentzako informazio- eta dibulgazio-kanpainak egiten laguntzea, dagokien toki-agintariaren jarraibideak betez.

4) Prebentzio-ekintzetan parte hartzea -giza kontzentrazioetan, baso-zaintzan etab.- dagokion organo eskudunak koordinatuta.

b) Esku-hartzearen eremuan:

1) Larrialdietako zerbitzu orokorreari laguntzea -suhiltzaileei, osasun-arloko langileei, polizia eta abarrei-, esku-hartzearen arduradunek eskatuz gero.

2) Larrialdi-egoeran dauden pertsonen zaintzan laguntzea -ebakuazioa, aterpea, hornidura...-

dagokion organo eskudunak koordinatuta.

3) Larrialdi-egoeratan ondoko esku-hartze lanetan laguntzea: pertsona eta ondasunen babes-, laguntza- eta sorospen-lanetan, prebentzioko edo kalteak saihesteko lanetan, eta konponketa- eta birgaitze-lanetan, udalerriko babes zibileko planen arabera esleitzen zaizkien eginkizunak betetze aldera.

4) Kalte publiko, arrisku larri edo hondamendiko salbuespeneko egoeratan agintariak mugiarazitako beste hainbat pertsona larrialdiei aurre egiteko lanetan sar daitezzen erraztea.

2.- Eginkizun horiek betetzean, kasuan kasuko agintari arduradunen mende egingo dute lan.

10. artikulua.- Lurralde-eremua.

1.- Boluntarioen toki-erakundeen jarduera-eremua udalerria da.

2.- Dena den, goiko edo lurralde-eremu berezi bateko babes zibileko plan batean zehaztuta, antolatuta eta araupetuta dagoenean, beste eremu batzuetan jarduteko mugiarazi ahal izango dituzte toki-erakundeok, baita lankidetzaz hitzarmen baten ondorioz edota toki-agintariaren baimena badago.

11. artikulua.- Egitura eta antolaketa.

1.- Euskadiko babes zibileko boluntarioen toki-erakundeen egitura malgua izango da, eta udalerriko babes zibileko planetan ezarritakora egokituko da.

2.- Toki-erakunde bakoitzak arduradun bat izango du eta, behar izanez gero, egitura funtzionala sekzio, talde edo lan-taldetan banatuko da, eta boluntarioak horiei atxikiko zaizkie euren ahalmen edo prestakuntzaren arabera.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeari kontsulta egin ondoren, Herrizaingo Sailak antolaketako esparru-araubideko eredu bat egin eta zabalduko du, bereganatu nahi duten toki-erakundeentzako gida-lerro gisa balio dezan.

12. artikulua.- Boluntarioak.

1.- Babes zibileko boluntarioen toki-erakunde batean askatasunez eta borondatez sartzeko, ondoko baldintzak bete beharko dira: adin nagusikoa izan, erakundeak ezartzen dituen baldintza edo proba ez diskriminatzaileak bete, eta dekretu honetako 14. artikuluan aipatzen den babes zibileko boluntarioen akreditazioa edo txartela izan.

2.- Larrialdietako ekintza zuzenetan parte-hartzea eskatzen ez duten eginkizun edo lanak egiteko, arauak edo elkarrekin ezarritako baldintzak adina, egoera psikofisikoa edo prestakuntza- betetzen ez dituzten laguntzaileak onartu ahal izango dituzte toki-erakundeek.

13. artikulua.- Prestakuntza.

Euskal administrazio publikoek babes zibileko toki-erakundeetako boluntarioen hasierako eta etengabeko prestakuntza bultzatuko dute.

14. artikulua.- Boluntarioen akreditazioak.

1.- Eusko Jaurlaritzan Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko eskumena duen Zuzendaritzak Euskadiko Babes Zibileko Boluntarioen toki-erakundeei emango dizkie erakunde horietako kideen identifikazio-agiri pertsonalak.

2.- Agiria doan emango da, dagokion toki-erakundeak aurretik eskatu eta gero. Erakunde horrek

kide boluntarioa dela ziurtatu beharko du, eta dekretu honetan aipatzen diren curriculumeko kompetenziak dituela egiaztatu. Eskaerarekin batera, nortasun-agiriko argazkien tamainako bi argazki erantsiko dira.

3.– Agiria pertsonala eta besterenezina da, eta, galdu edo hondatuz gero, edo datuak aldatuz gero, berritu egin behar da.

4.– Boluntario batek bere erakundearen baja ematen badu, hari itzuliko dio akreditazioa, eta erakundeak Eusko Jaurlaritzan larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko eskumena duen zuzendaritzara bidaliko du.

15. artikulua.- Bereizgarriak eta uniformetasuna.

Euskadiko Babes Zibileko boluntarioen toki-erakundeetan guztiek erabili beharreko bereizgarriak eta oinarritzko uniformetasunaren ezaugarri fisikoak Herrizaingoko sailburuaren agindu bidez ezarriko dira, Euskadiko Babes Zibilerako Batzordearen txostena jaso ondoren.

IV. KAPITULUA

BABES ZIBILEKO BESTE ERAKUNDE LAGUNTZAILE BATZUK

20. artikulua.- Erakunde laguntzaileak.

1.- Dekretu honen ondorioetarako, babes zibileko erakunde laguntzaile dira ondoko baldintzak betetzen dituzten erakundeak:

a) Larrialdi-egoeratan pertsonen laguntza ematea eta ondasunak babestea xede nagusitzat dutenak, euren estatutuen edo arau eratzaileren arabera, edota estatutuetan jasota daukatenak eskatzen zaienean laguntza eta babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzuak ematea.

b) Izaera altruista eta irabazi-asmorik gabekoak direnak; ez da ezinbestekoa kide-inskripzioari dagokionez irekiak izatea.

c) Eusko Jaurlaritzako organo eskudunarekin lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dutenak, zeinaren bitartez babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko ekintzetan laguntza emateko konpromisoa hartzen baitute.

2.- Dekretu honetan ezarritako araubide juridikoari atxikiko zaizkio erakunde laguntzaileak, eta V. kapituluan ezarritako erregistroan inskribatu beharko dira.

21. artikulua.- Lankidetzaren hitzarmenak

Aurreko artikuluan aipatzen diren lankidetzaren hitzarmenek, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunaren eta erakunde laguntzaileen artekoek, gutxienez, honako alderdi hauek arautuko dituzte:

a) Jarduerako lurralde-eremua.

b) Babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko ekintzetan boluntarioek egin beharreko jarduerak.

c) Mugiarazte-sistema.

d) Bitarteko eta baliabideen erabilgarritasuna.

e) Erakundearen arduraduna.

f) Babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko gaietan boluntarioek izango duten prestakuntza.

g) Babes zibilari eta larrialdiei aurre egiteko jarduerari atxikitako boluntarioen akreditazioak eta uniformetasun-elementuak.

h) Larrialdi-egoeratan parte hartzeagatik erakunde laguntzaileak izan ditzakeen gastu eta kalteak ordaintzeko arauketa, agintari eskudunak eskatuta parte hartzen duenean.

22. artikulua.- Larrialdietan mugiaraztea.

SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak mugiaraziko ditu babes zibileko erakunde laguntzaileak, horretarako izenpetuta duten lankidetzak-hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

V. KAPITULUA

BABES ZIBILEKO BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ERREGISTROA

23. artikulua.- Eratzea.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibileko Boluntariotzako Erakunde Laguntzaileen Erregistroa sortzen da. Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzari atxikiko zaio eta dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten boluntarioen erakundeak inskribatuko dira erregistro horretan.

2.- Erregistroak bi atal izango ditu:

a) Lehenengo atala: Euskadiko babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak inskribatzekoa.

b) Bigarren atala: dekretu honetako IV. kapituluan aipatzen diren erakunde laguntzaileak inskribatzekoa.

3.- Erregistroa kudeatzean, datu pertsonalen fitxategiak sortu eta ustiatzen direnean, datu pertsonalak babesteko arautegian ezarritakoa bete beharko da.

24. artikulua.- Inskripzioa.

Boluntarioen erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideen konturako finantza-iturrietara, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko gaietan partehartze-, sustapen-, prestakuntza- eta jarduera-bideetara iristeko, beharrezko baldintza da erregistroan inskribatzea.

25. artikulua.- Edukia.

Ondoko datuak gutxienez erregistratu beharko dira:

a) Erakundearen edo antolakundearen izena.

b) Toki-erakundearen kasuan, zein toki-entitatera atxikita dauden.

c) Egoitza soziala, jarduera-eremua eta espezialitateak, erakunde laguntzaileen kasuan.

d) Sorrera-data.

e) Erakundearen edo antolakundearen arduraduna.

f) Egiatutako kideen altak eta bajak.

g) Talde espezializatuak, halakorik baldin badago.

26. artikulua.– Prozedura.

1.– Erregistroan inskribatzeko eskatuko dute toki-erakundean eskuduna den arduradunak edo elkarte edo erakunde laguntzaileko lehendakaritzako titularrak, agiri hauek erantsita:

a) Eraketa egiaztatzen duten agiriak, estatutuak, araudiak edo barne-arauak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko eremura eta larrialdietara atxikitako antolakunde edo erakundean jardunean dauden kideen eta arduradunaren izenen zerrenda.

c) Egiaztageria, organo eskudunak egindakoa, dagokion erregistro publikoan inskripzioa egina duela egiaztatzen duena. Espainiako Gurutze Gorriaren kasuan eta babes zibileko boluntarioen toki-elkarteen kasuan ez da beharrezkoa izango horrelako egiaztapenik.

d) Elkarte modura eratutako toki-erakundeen kasuan, hitzarmen bidez tokiko babes zibilarekiko lotura eta hari atxikia izana egiaztatzen duen egiaztageria.

2.– Eskabidea bide telematikoz aurkeztuko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzan.

3.– Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzak aztertuko ditu aurkeztutako agiriak, eta, aurreko artikuluan aipatutako datuetan akatsik edo hutsunerik baldin badago, eskatzaileari jakinaraziko dio, dagokion zuzenketa egin dezan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera. Gehienez ere 3 hilabeteko epean ebatziko da prozedura.

27. artikulua.- Aldaketak eta baliogabetzeak.

1.- Erregistratutako datuen edozein aldaketak dagokion inskripzioaren aldaketa dakar.

2.- 26.1.b) artikuluan aipatzen diren antolakunde edo erakundeetako jarduneko kideen altak eta bajak Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaizkio 10 eguneko epean.

3.- Estatutuak aldatzen badira, organo eskudunak aldaketa egiteko hartutako erabakiaren kopia legeztatua bidali beharko da 10 eguneko epean.

4.- Antolakunde edo erakunde bat desagertzen bada, edo estatutuetan finkatutako helburuetatik kanpoko jarduerak burutzen badira, erregistroko inskripzioa baliogabetu egingo da, horretarako espedientea izapidetu ondoren. Toki-erakunde bat edo erakunde laguntzaile bat desagiten bada, desagitearen berri ematen duen udal-aktaren edo organo eskudunaren erabakiaren kopia legeztatua bidali beharko da 10 eguneko epean.

VI. KAPITULUA.– CURRICULUMEN KOMPETENTZIAK ETA PRESTAKUNTZA.

28. artikulua.– Curriculumeko kompetentziak.

1.– Behean aipatzen diren curriculumeko kompetentziak egiaztatu beharko dira baldin eta babes zibileko boluntarioen toki-erakunde bateko eskubide osoko kide boluntario bezala parte hartu nahi bada babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko lan prebentibo eta operatiboetan:

a) Identifikatzea Euskal Autonomia Erkidegoan larrialdi-egoera bakoitzean aplikatu beharreko oinarrizko araudia eta antolaketa, baita babes zibileko planak, taktika operatiboak eta autobabeserako neurriak ere.

b) Ezagutzea zein diren oinarrizko arrisku natural eta teknologikoen motak eta horien jatorria,

faktore eragileak eta sailkapena, baita prebentziorako, autobabeserako eta esku-hartzerako oinarrizko neurriak ere.

c) Mantentzea eta egiaztatzea erakundeak dituen bitarteko materialen funtzionamendua, larrialdiak prebenitzeko eta haietan esku hartzeko erabilitakoena.

d) Larrialdietan komunikazioetarako oinarrizko elementuak erabiltzea.

e) Biktimak bilatzeko, salbatzeko eta erreskatatzeko jarduerak egitea bitarteko eta teknika egokiekin eta segurtasun-baldintzetan.

f) Larrialdi egoeretan lehen sorospenak eta bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea egitea, baita desfibriladorea erabiltzea eta zaurituak maneiatzea eta garraiatzea ere, betiere ezarritako protokoloen arabera.

g) Suteak itzaltzeko oinarrizko elementuak erabiltzea (su-itzalgailuak eta suteetako ur-hargune hornituak erabiltzea).

h) Larrialdi-egoeretan herritarrak ebakutzeko eta aterpetzeko operazioak egitea.

i) Larrialdi-egoeretan laguntza psikiko eta soziala ematea, ezarritako protokoloen arabera.

2.– Babes zibileko entitate laguntzaileen kasuan, izenpeturiko hitzarmenaren lankidetzaren eremua jarduera espezializatuei buruzkoa bada, eta jarduera horietarako ez bada beharrezkoa dekretu honetan aipaturiko curriculumeko kompetentziak izatea, halakoetan dagokion lankidetzaren hitzarmenean zehaztuko dira curriculum-kompetentzia espezializatuak.

29. artikulua.– Curriculumeko kompetentziak egiaztatzea.

1.– Babes zibileko boluntarioen toki-erakundeetako boluntarioen curriculumeko kompetentzia horiek honela egiaztatu ahal izango dira:

a) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak horretarako ematen duen prestakuntza-ikastaroa gaindituz.

b) Larrialdietan jarduteko funtzioak gauzatzeko curriculumeko oinarrizko kompetentziak ematen dituen titulu akademiko baten edo profesionaltasun-ziurtagiri baten bidez. Nolanahi ere, egiaztatutzat joko dira Larrialdietako eta Babes Zibileko teknikariaren titulua eta Larrialdien Koordinazioko eta Babes Zibileko Goi Mailako teknikariaren titulua dutenak, kontuan hartuta zer kualifikazio profesional eta kompetentzia sartzan diren titulazioa horietan.

c) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemarako funtsezkotzat edo oinarrizkotzat jotako zerbitzuetako zerbitzu profesionalak eman izana egiaztatuz.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako babes zibileko entitate laguntzaileen kasuan, curriculumeko kompetentziak egiaztatu ahal izango dira lankidetzaren hitzarmenak edo hitzarmen horren jarraipen-batzordeak ezarritako ordezko mekanismoen bidez, betiere espezializazioaren berezkotasunak kontuan hartuta.

30. artikulua.– Prestakuntza.

1.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak babes zibileko boluntarioen erakundeentzako prestakuntza-plan bat onartu eta argitaratuko du urtero, dauden babes zibileko boluntarioen erakundeei kontsulta egin ostean. Dokumentu horrek honako hauek jasoko ditu: prestakuntza-jarduerak, antzemandako premien eta errealitateen arabera planifikatuak; sartzeko arauak; egon daitezkeen ebaluazio-probak, eta dagokion ziurtagiria ematea.

2.– Prestakuntza-plan horretako prestakuntza-jardueretan parte hartu ahal izango dute babes zibileko boluntariotzako erakunde laguntzaileen erregistroan inskribatuta dauden erakundeetako kide direnek.

3.– Hauek sartuko dira prestakuntza-ikastaroetan:

a) Nahitaezko oinarrizko prestakuntza, boluntario-izaeraren akreditazioa eskuratzeko beharrezkoak diren curriculumeko konpetentziak lortzera eta ziurtatzera bideratua.

b) Eguneratzeko prestakuntza. Helburu hau izango du: erakundeak osatzen dituzten pertsonen euren mailari eustea bilakaera izan duten edo aldatu egin diren gaietan.

c) Hauei prestakuntza espezifikoa ematea: erakundeetako burutzan edo agintean dauden pertsonen, edo babes zibileko boluntarioen instrukzio-lanetan laguntzen duten monitoreei.

d) Espezializazioko prestakuntza ematea, helburu honekin: erakundeetako kideek jakin behar dituzten arlo edo giteko espezifikoetan sakontzea.

4.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren programazioan, boluntarioen parte-hartzea sustatuko da, ahal den neurrian urrutiko prestakuntza ahalbidetzen duten teknologiak erabiliz.

5.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak homologatu ahal izango ditu, egin baino lehen, dekretu honetan aurreikusi ez diren beste ikastaro batzuk, betiere organismo autonomo horrek ezarritako betekizunak betetzen badituzte honako alderdi hauei dagokienez: helburuak, programak, edukiak, iraupena, egutegia, irakasleak, ebaluazio-sistemak, eskainitako plazak eta non eta zer baliabide materialekin egingo diren.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Udalaz gaindiko babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak.

Salbuespen gisa, udalaz gaindiko jarduera-eremuko babes zibileko boluntarioen toki-erakundeak erregistratzeko baimena eman ahal izango da, baldintza hauek betetzen badira: barnean diren udalen onarpena izatea, horrelako beste erakunderik ez egotea eremu horretan, eta babes zibileko planek eta udal-erakundeen arteko akordioek erabili behar diren baliabideen mugiarazte eraginkorra eta gainezarpenik gabekoa ahalbidetzea.

Bigarrena.– Suhiltzaile boluntarioak.

Suhiltzaile boluntarioak arautuko dira suteak prebenitu eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuen berezko araudietan xedatutakoaren arabera, berezko araudi horietan suhiltzaile boluntarioak agertzen badira, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Toki-erakundeen egokitzapena.

Euskadiko Babes Zibileko boluntarioen toki-erakundeek urtebeteko epea izango dute euren barne-arauak dekretu honetan xedatutakoari egokitzeko.

Hirugarrena.- Babes Zibileko Boluntariotzako Erakunde Laguntzaileen Erregistroaren ezarpena.

Jadanik eratutako toki-erakundeek eta Herrizaingo Sailarekin hitzarmena duten erakunde

laguntzaileek, Babes Zibileko Boluntariotzako Erakunde Laguntzaileen Erregistroan inskribatzeko beharrezko agiriak bidali beharko dituzte Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzara, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera hiru hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean. Dena den, oinarrizko prestakuntzako moduluei, akreditazioari eta uniformetasunari buruz dekretu honetan egindako aurreikuspenak, horiek garatzen dituen sailburuaren agindua indarrean sartzetik aurrera eskatu ahalko dira soilik.

Bigarrena.- Otsailaren 17ko 24/1998 Dekretuari 9. artikulua berri bat gehitzen zaio, Euskadiko Babes Zibilerako Batzordearen eraketa, eginkizunak eta antolaketa arautzen dituena, zeinaren edukia ondokoa baita:

«9. artikulua.- 1.- Babes Zibileko Boluntariotzako Aholku Batzordea sortzen da, Euskadiko Babes Zibilerako Batzordeko lan-organo gisa, zeinaren eginkizunak izango baitira babes zibileko boluntariotzako eta haren erakundeetako antolakuntza, eginkizunak, prestakuntza eta baliabideen inguruko gaiak aztertu eta eztabaidatzea.

2.- Aipatu aholku-batzordearen eraketan, Euskadiko Babes Zibilerako Batzordean dauden erakundeek hartuko dute parte, batzorde horretan erabakitako moduan eta, halaber, Babes Zibileko Boluntariotzako Erakunde Laguntzaileen Erregistroan inskribatuta dauden erakundeetako ordezkariari egingo zaie dei, euren ordezkagaitasunaren arabera, Herrizaingo Saileko titularrak izendatu eta erakundeek proposatu ondoren».

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 19an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.